



Haurren bertaratzearen araudia

STEILAS sindikatuan urteak daramatzagu lanean Haurreskolak Partzuergoa zerbitzu publikoa, doakoa eta unibertsala izan dadin . Pasa den ikasturtean jakinarazi ziguten aurten horrela izango zela behingoz, baina zein preziotan? Enpresak eta Jaurlearitzak, doakotasunaren truke ordutegietan eta hortaz, hezitzaileen ratioetan, murrizketak egin dituzte, eszedentzian dauden gurasoengan zigorrak ezarri, haurren asistentzietan kontrolak eta penalizazioak jarri...

Haurren asistentziari dagokionez, aurreko astean enpresak alde bakarrez hartutako erabakiak eta familiek eta hezitzaileek jarraitu beharreko arauak bidali zituen.

Familiek, goizeko eta egun osoko ordutegiak zehaztu behar izan dituzte. Egun osoko ordutegia ezarrita duten familiek goizeko ordutegia egiten dutenean, egun erdiko asistentzia falta ez justifikatua ezarriko zaie. Horretaz gain, zehaztutako ordutegia, hau da, sarrera-irteera ordutegia, betetzen ez duten familien kasuan, jarraipena egingo zaie dagokion ondorioekin. Hurrek, ikasturtean zehar %80ko asistentzia bermatu beharko dute. Familiek eskatutako ordutegiak ez badituzte betetzen Partzuergoak ofiziozko baja emango die. Ondorioz, zentzurik gabeko kontrol honek familiekin mesfidantzazko harremanak sortzeko arriskua ekarriko du.

Aurreko ikasturtean azalarazi genuen bezala, agerian geratzen da Haurreskolak Partzuergoa doakoa izatea ez dela lehentasuna Hezkuntza Sailarentzat; izan ere, doako zerbitzu bat eskaintzeak dakarren matrikulazio igoeraren aurrean, baliabide pertsonalak ezartzeko inbertsiorik ez bada egiten derrigorrez neurri zorrotzak aplikatu beharko dira.

Horri Haurreskolak Partzuergoko langileon eta batez ere, koordinatzailearen lan zamaren handitzea gehitu behar diogu.

Horregatik guztiagatik, aurreko ikasturtean egin zen bezala, **STEILAS** sindikatutik araudi berriak ekarri dizkigun neurri zorrotz guzti hauekin amaitzea eskatzen dugu, benetako doakotasuna eta unibertsaltasuna berma dadin.



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus